



GOBERNU BATZARRA

2021.04.20

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Xabier Balerdi Tolosa
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko apirilaren hogeian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Akta hau onartzea: 2021eko martxoaren 16an ohiko bilkurakoa.
2. Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko.
3. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2021/ 453 Dekretua: 2020/77 faktura zerrenda.
 - 2021/ 541 Dekretua: 2021/6 faktura zerrenda.
 - 2021/ 619 Dekretua: 2021/7 eta 2021/8 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO MARTXOAREN 16KO OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko martxoaren 16an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. TOLOSAKO UDAL ERAIKINAK ETA HIRI-ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN LIZITAZIOA HUTS DEKLARATZEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua.
---------------------	---



Unitate sustatzailea:	Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaila
Espedientea:	2020SABI00010

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Espedientea eta administrazio baldintza partikularren zein preskripzio tekniko partikularren pleguak 2020ko abenduaren 18an onartu zituen udalbatzak; lizitazioaren deialdia, berriz, 2020ko abenduaren 21ean argitaratu zen Euskadiko Kontratzailearen Profilean.

Bigarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, enpresa hauek aurkeztu zituzten eskaintzak: EULEN, S.A. (A28517308), KELSALIM ZERBITZUAK, S.L. (B01415553) eta OHL SERVICIOS INGESAN, S.A. (A27178789).

Hirugarrena.- 2021eko otsailaren 9an kontratazio mahaia bildu zen lizitazioaren "A" gutun-azalaren eginbidea onartu eta "B" gutun-azala irekitzeko.

Laugarrena.- 2021eko martxoaren 23an kontratazio mahaia bildu zen "C" gutun-azala irekitzeko. Bertan Hirigintza Saileko teknikariak irakurri zuen zifretan edo ehunekoetan baloratu ezin daitezkeen irizpideen balorazioari buruz egindako txostena. Txosten horretan, teknikariak adierazi zuen hiru enpresa lizitzaileek C gutun-azalean soilik agertu behar zuten informazioa edo erreferentziak sartu zituztela memoria teknikoan. Ondorioz, kontratazio mahaia enpresei hiru egun balioduneko entzunaldi-epea ematea erabaki zuen, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, haien interesak defendatzeko beharrezkotzat jotzen zuten gutzia alega edo argudia zezaten.

Bosgarrena.- 2021eko martxoaren 23an kontratazio mahaia bildu zen EULEN, S.A enpresak aurkeztu zuen alegazioa aztertzeko. Behin alegazioa eta kontratazio teknikariak egindako txostena ikusirik, alegazioa ez onartzea erabaki zuen kontratazio mahaia.

Seigarrena.- Aurreko gutzia aintzat harturik, kontratazio mahaia proposatu zion kontratazio organoari aurkeztutako hiru enpresak lizitaziotik kanpo uztea eta aipatutako kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko, aurkeztutako proposamenek ez zutelako BAPPearen ezarritakoa betetzen.

Aurreko gutzia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Huts deklaraztea aipatutako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa, 2021eko martxoaren 23an kontratazio mahaiak proposatutakoari jarraituz.

BIGARRENA.- Huts deklaratu izanaren berri iragartzea kontratatzailearen profilean.

HIRUGARRENA.- Kontratazio organoari proposatzea aipatutako xedea duen lizitazio bat martxan jartzea urgentziazko izapidetzeaz.

LAUGARRENA.- Erabakia jakinaraztea interesdunei, Obrak eta Zerbitzuak Azpisailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- 2021/ 453 DEKRETUA: 2020/77 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/453 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

77. zenbakia duena, 70.008,52 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:



77. zenbakia duena, 70.008,52 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2021/ 541 DEKRETUA: 2021/6 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/541 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda haue:

6. zenbakia duena, 266.771,40 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:



6. zenbakia duena, 266.771,40 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2021/ 619 DEKRETUA: 2021/7 ETA 2021/8 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/619 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

7. zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa.

8. zenbaki duena, 593.222 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00007

7. zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa.

8. zenbaki duena, 593.222 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0007-2021-04-20 Gobernu batzarra akta/2021-04-20 Gobernu